

## IV. ERANSKINA

### PROIEKTU MOTA: PRESTAKUNTZA-JARDUERA ESPEZIFIKOAK

#### EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

**a) Honako hauen zehaztasun-maila: prestakuntza-jarduera zuzentzen zaien pertsona-taldeen ezaugarriena; talde horren kuantifikazioarena eta ase nahi diren prestakuntza-premiarena; bete nahi diren helburuena – onuradunek gaitasunak eskuratzeari eta haien kualifikazioa hobetzeari dagokionean– eta prestakuntza-jardueran aurrera egiten jarraituko duten hartzaileena. Lortu nahi diren helburuen lorpena ebaluatzeko proposatutako adierazleen koherentzia eta baliozkotasuna (gehienez: 25 puntu)**

- Hartzaileen kolektiboaren ezaugarriak eta kuantifikazioa (gehienez 5 puntu)
- Prestakuntza-jardueraren hartzaileak 30 urtetik gora dituzten eta Bigarren Hezkuntzako graduatua lortu ez duten pertsonak dira, edo 55 urtetik gorakoak (3 puntu)
- Jardueraren hartzaileen zerrenda erantsi da, datuak sexuaren eta adinaren arabera bereizita (2 puntu)

Prestakuntza-jardueren hartzaileen adina: amaierako memorian hasierako eskaeran adierazitakoaren % 20tik gorako desbideratzerik antzematen bada, eskaerako balorazioa berrikusiko da.

- Ase nahi diren hartzaileen prestakuntza-premiak (gehienez 10 puntu)
- Hobekuntza-prozesuetan parte hartzeko eta norberaren lanbide-kualifikazioa eguneratzeko beharrezkoak diren oinarrizko kompetentzietako gabeziak konpondu nahi dira: oinarrizko gaitasun instrumentalak, gaitasun digitalak, gaitasun pertsonal eta sozialak, eta ikasten ikastea (10 puntu)
- Ase nahi diren prestakuntza-premiak autonomia pertsonala hobetzeko (oinarrizko kompetentzia instrumentalak, kompetentzia digitalak, kompetentzia pertsonalak eta sozialak), gizartearen partaidetza eta boluntarioritza sustatzeko eta 55 urtetik gorakoen artean inguruko proiektu komunitarioekiko lotura sustatzeko gaikuntzarekin lotuta daude (10 puntu)

- Lortu nahi diren helburuak kompetentziak eskuratzeari eta kualifikazioak hobetzeari dagokionez (gehienez 10 puntu)
- Helburuak zehaztapen hauen arabera idatzita daude (5 puntu):
  - Lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan sartzeko oinarrizko kompetentziak eskuratzeko edo
  - Autonomia pertsonala hobetzeko eta 55 urtetik gorakoek herrian parte hartzeko gaikuntza.
- Helburuak bat datoz hartzaileen kualifikazioarekin eta prestakuntza-premiekin (2 puntu)
- Adierazle koherenteak eta baliozkoak proposatzen dira helburuak lortzeko (3 puntu)

- GUZTIZKO PARTZIALA**

**b) Erakunde eskatzailearen kaudimen tekniko helduen prestakuntzaren arloan, bereziki kualifikazio baxuko pertsonekin, eta prestakuntza-jarduera espezifikoak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko gaitasuna. Kaudimen teknikoaren oinarria izango da garatu nahi den jardueraren esku jarriko diren baliabide materialen kalitatea eta giza baliabideen esperientzia eta prestakuntza (gehienez: 25 puntu)**

– 50 ordutik gorako iraupena duten ikastaro bakoitzeko edo  
– 20 ordutik gorako ikastaro-multzo bakoitzeko, guztiek batera gutxienez 60 ordu batzen badituzte  
Aurreko a) apartatuan deskribatutako ezaugarriak betetzen badituzte eta proposatutako jarduera emango duten profesionalak helduei eman badizkiete azken 3 urteetan (0,20 puntu, gehienez 10 puntura arte, edo 0,50 puntu, gehienez 10 puntura arte, kualifikazio txikiko 30 urtetik gorako pertsonen kasuan, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

Uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko euskararen C1 maila eta horren baliokideak egiaztatzeko proposatutako jarduera emango duen profesional bakoitzeko. Dekretu horrek euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen du (puntu 1 profesional bakoitzeko, gehienez ere 4 puntu arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

Proposatutako jarduera emango duen profesionalak jaso dituzten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zuzenean lotutako gaiet buruzko eta gutxienez 20 orduko ikastaro bakoitzeko (0,20 puntu, gehienez 3 puntu arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira). 150 ordutik gorako ikastaroek 3 puntu lortuko dituzte

Baliabide materialak egokiak eta behar bestekoak dira jarduera garatzeko (5 puntu)

Ikasmaterialak eta publizitatean nahiz jarduera osoan erabilitako materialak hizkera ez-sexista erabiliz idatzita badaude eta irudiek eta testuek genero-rolak apurtzea sustatzen badute (3 puntu, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**c) Garatu beharreko prestakuntza-jarduera zehaztea: edukiak, metodologia, emaitzak eta ebaluazio-irizpideak, iraupena ordutan eta aurreikusitako programazioa. Proposatutako prestakuntza-jardueraren koherentzia adierazitako helburuekin eta ase nahi diren prestakuntza-premiekin –aurrekoa) apartatuan adieraziak– (gehienez: 25 puntu)**

Edukiak (8 puntu)

Aurreikusitako programazioa eta honako hauekin zuzenean lotutako edukiak (8 puntu):  
- Autonomia pertsonala hobetzeko eta 55 urtetik gorakoen parte-hartze sozialerako gaikuntza, edo  
- Lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan sartzeko oinarrizko kompetentziak eskuratzea.

Metodologia (7 puntu)

Xehatua, arrazoitua eta jardueraren eduki, helburu eta hartzaileekin bat datorrena (7 puntu)

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak (6 puntu)

Esperotako ikaskuntza-emaitzak lortu direla bermatzea ahalbidetzen duten ebaluazio-irizpideak zehazten dira. (6 puntu)

Proiektuaren garapenerako behar den egutegia eta ordu-iraupena (4 puntu)

Xehatua eta eduki eta helburuekin bat datorrena (4 puntu)

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**GUZTIRA (GEHIENEZ 75 PUNTU)**